

Erregistro Zibila

HIZTEGIA



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2016

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren
Bibliotekak sarearen katalogoan aurki daiteke:

<http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

Argitaraldia: I.a, 2016ko xxxx

Ale-kopurua: 1.500 ale

© argitaraldi honena: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Internet: <http://www.euskara.euskadi.eus/euskalterm>

Azala: Concetta Probanza

Inprimaketa: XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX

ISBN: XXXXXXXXXXXXXXXX

Lege gordailua: XXXXXXXXXX

HITZAURREA

Euskararen Aholku Batzordearen Terminologia Batzordeak onartutako hiztegia duzu hau. Hortaz, Batzordeak gomendatu egiten du hiztegi honetako terminologia erabiltzea.

Izan ere, Terminologia Batzordeari dagokio, besteak beste, terminologia-alorrean dauden lehentasunak finkatzea, lan-proposamenak egitea, terminologia-lanerako irizpideak ezartzea, termino lehiakideen arteko lehentasunak jartzea ponderazio-markak finkatuz, eta terminoen erabilera onestea eta gomendatzea. Terminologia Batzordeak urteko jarduketa-planetan jasotzen ditu horiek guztiak.

Hiztegi hau, Terminologia Batzordeak onartutako gainerako hiztegiak bezala, EUSKALTERM Euskal Terminologia Banku Publikoan (www.euskara.euskadi.eus/euskalterm) dago integratuta.

EUSKALTERM erabilera publikoko bankua da, Eusko Jaurlaritzak bideratu eta sustatu nahi duen terminologiaren produkzioaren, kudeaketaren eta hedapenaren muina. Banku hori metodologia eta irizpide jakin batzuen arabera eguneratu eta elikatzen da, betiere Terminologia Batzordeak onartutako jarduketa-planen jarraituz. Beraz, EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa

etengabe elikatzen eta zabaltzen ari gara Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzatik IVAPeekin lankidetzan, euskal terminologiaren normalizazioari eta zabalkundeari ekin eta eusteko.

Garaiazen arabera, gizartea aldatzen den neurrian, hizkuntzak ere aldatzen dira, bizirik badaude, behar berriei erantzuteko. Ondorioz, hizkuntza baten modernizatzearen eta eguneratzearen prozesua ez da inoiz amaitzen. Horregatik, hizkuntzaren altxor lexikoa eta terminologikoa etengabe elikatu behar dira, hizkuntza bera normalizatzeko, batetik, eta erabiltzaileen premiei erantzuteko, bestetik.

Honakoa, hiztegiak jorratzen duen eremuko erabiltzaileen oinarritzko premiak asetzeko baliagarri izatea nahi genuke, baita gure hizkuntzaren normalizazioaren eta eguneratzearen bidean urrats garrantzitsuak izatea ere. Hiztegi hau eta honekin batera argitaratzen ditugun guztiak eguneroko jardunean erabiltzera animatzen zaituztegu, euskaldunok hizkuntza gero eta aberatsagoa izan dezagun.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko martxoaren 17a

PATXI BAZTARRIKA GALPARSORO
Hizkuntza Politikarako sailburuordea

HIZTEGIARI BURUZKO ARGIBIDEAK

Hiztegi hau UZEI Terminologia eta Lexikografia Zentroak egin du EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa (www.euskara.euskadi.eus/euskalterm) eguneratzeko eta elikatzeke entitate horrek Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin (HPS) izenpetutako kontratuaren barruan. Kontratua HPSk eta IVAPEk finantzatu dute, bi erakunde horiek sinatutako hitzarmenaren bidez.

EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa da Terminologia Batzordeak¹ finkatutako terminologia-lana zabaltzeko ardatza. Aldi berean esan behar da Terminologia Batzordeak onartutako jarduketa-planen barruan ezarritako lehenasunen arabera eguneratzen dela Terminologia Banku Publikoa. Euskararen Aholku Batzordeko Terminologia-batzorde atal bereziak euskarazko terminologia-lanerako finkatu zuen metodologiari jarraituta, hiztegi hau, lehenengoz, hizkuntzalariez eta eremuko adituez osatutako batzorde teknikoak aztertu eta landu zuen, Terminologia Batzordeari behin betiko proposamena luzatzeko. Normalizazio-prozesuaren azken urratsa Terminologia Batzordeak onartzea izan da. Beraz, hemen duzue eremu honetako terminologiaren erabiltzaileei **Terminologia Batzordeak gomendatzen dien terminologia**.

1 176/2007 DEKRETUA, urriaren 16koa, Euskararen Aholku Batzordeari buruzkoa.

Hiztegien erabilitako ponderazio-markak:

(4) Termino normalizatua / gomendatua

(3) Termino onartua (baina ez lehenetsia, beste bat gomendatzen delako)

Hiztegien erabilitako laburtzapenak:

eu euskara

es español

Sin. sinonimoa

Ik. ikus

NORMALIZAZIOA

BATZORDE TEKNIKOA

Maite Barruetabeña (Euskal Herriko Unibertsitatea)

Aitor Gorostiza (Justizia Saileko euskara batzordea)

Aloña Iribar (UZEI)

Koordinatzailea: **Izaskun Osinalde**

(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)

TERMINOLOGIA BATZORDEA

Patxi Baztarrিকা Galparsoro, Hizkuntza Politikarako sailburuordea, batzorde-ataleko lehendakaria

Eneko Oregi Goñi, IVApeko zuzendariordea, batzorde-ataleko lehendakariordea

Jorge Giménez Bech, EABko eta batzorde-ataleko idazkaria

Araceli Díaz de Lezana Fernández de Gamarra, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako ordezkaria

Maite Imaz Leunda, IVApeko ordezkaria

Andoni Sagarna Izagirre, Euskaltzaindiaren ordezkaria

Iker Etxebeste Zubizarreta, Unibertsitate Zerbitzueterako Euskal Ikastetxeko (UZEI) ordezkaria

Xabier Alberdi Larizgoitia, Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Institutuko ordezkaria

Ibon Olaziregi Salaberria, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Euskara Zerbitzuaren ordezkaria

Mertxe Olaizola Maiz, aditua

Joseba Erkizia Itoitz, aditua

Asier Larrinaga Larrazabal, aditua

Miel Loinaz Beristain, aditua

Alberto Atxabal Rada, aditua

Alfontso Mujika Etxeberria, aditua

UZEI-REN LANKIDE IZAN DIREN ADITUAK

Cesar Gallastegi Aranzabal. Deustuko Unibertsitatea

Mikel Mari Karrera Egialde. EHU

Ixusko Ordeñana Gezuraga. EHU

EREMU-ZUHAITZA



- 1 Atal orokorra**
- 2 Erregistro Zibilaren antolaketa**
- 3 Erregistro-tituluak**
- 4 Idazpenak oro har**
- 5 Organoak eta pertsonal eskuduna**
- 6 Erregistro-prozedura**

AURKIBIDEA



Bokabularioa sailka

- 1. Atal orokorra 14
- 2. Erregistro Zibilaren antolaketa 16
- 3. Erregistro-tituluak 21
- 4. Idazpenak oro har. 23
- 5. Organoak eta pertsonal eskuduna. 29
- 6. Erregistro-prozedura. 30

Euskarazko aurkibidea 33

Gaztelaniazko aurkibidea 39

Erreferentzia bibliografikoak. 45

BOKABULARIOA SAILKA

I. ATAL OROKORRA

1

eraginkortasun eratzaille (4)

Sin. eratze-eraginkortasun (4)

es eficacia constitutiva

eratze-eraginkortasun

Ik. eraginkortasun eratzaille

2

Erregistro Zibil bakar (4)

es Registro Civil único

3

Erregistro Zibila (4)

Pertsona fisikoaren egoera zibilari buruzko informazioa inskribatzeko erregistroa. Pertsonen jaiotza, heriotza, ezkontza, gaitasuna eta, orokorrean, egoera zibilaren aldaketak eta Erregistro Zibilaren Legean zehaztutako gainerakoak erregistratzen dira bertan, egitate horiek froga-balioa izan dezaten eta publikoak izan daitezen.

es Registro Civil

4

Erregistro Zibilaren Erregelamendua (4)

Sin. EZE (4)

Erregistro Zibilaren Legea betearaztea helburu duen erregelamendua. Bertan zehazten dira erregistroko datu-fitxategi automatizatuen konfigurazioa eta kudeaketa, eta idazpenak nahiz ziurtagiriak egiteko modua eta gainerako xehetasunak.

es Reglamento del Registro Civil; RRC

5

Erregistro Zibilaren Legea (4)

Sin. EZL (4)

Erregistro Zibilaren antolamendu juridikoa helburu duen legea. Zehazki, hauek arautzea du xede: Erregistro Zibilaren antolaketa, zuzendaritza eta funtzionamendua, erregistroan jasotzen diren egitateen eta egintzen sarreramodua, eta erregistroko edukiaren publikotasuna eta ondoreak.

es Ley del Registro Civil; LRC

EZE

Ik. Erregistro Zibilaren Erregelamendua

EZL

Ik. Erregistro Zibilaren Legea

6

frogatze-eraginkortasun (4)

es eficacia probatoria

7

hirugarrenen aurka baliatzeko ahalmenaren printzipio (4)

Egintza juridiko gisa formalizatuta dagoen errealitatea hirugarrenen aurka balia daitekeela ezartzen duen printzipioa. Hirugarrenek nahitaez kontuan izan behariko dute egintza hori.

es principio de oponibilidad

8

**hirugarrenen aurka
baliatzeko ezintasunaren
printzipio (4)**

Egintza juridiko gisa formalizatuta ez dagoen errealitatea hirugarrenen aurka ezin dela baliatu ezartzen duen printzipioa. Errealitate hori existituko ez balitz bezala jardun dezakete hirugarrenek juridikoki.

es principio de inoponibilidad

9

legezkotasun-printzipio (4)

Sin. legezkoatasunaren printzipio (4)

es principio de legalidad

legezkoatasunaren printzipio

Ik. legezkoatasun-printzipio

10

ofizialtasun-printzipio (4)

es principio de oficialidad

11

osotasun-presuntzio (4)

Erregistro Zibilaren funtzionamendu-presuntzioa, Erregistro Zibilean inskribatutako egitateen eta egintzen edukia osotzat ematen duena.

es presunción de integridad

12

publikotasun murriztu (4)

Babes berezipean dauden datuek duten publikotasun mugatua.

es publicidad restringida

13

publikotasun-printzipio (4)

Sin. publikotasunaren printzipio (4)
Erregistro Zibilaren funtzionamenduririzpidea, Erregistro Zibila publiko izatea eta herritarrek beren erregistro indibidualeko datuetara sarrera librea izatea bermatzen duena.

es principio de publicidad

publikotasunaren printzipio

Ik. publikotasun-printzipio

14

zehaztasun-presuntzio (4)

Erregistro Zibilaren funtzionamenduririzpidea, Erregistro Zibilean inskribatutako egitateak existitzen direla eta idazpenak legean ezarritako moduan arteztuak edo ezereztuak ez diren bitartean egintzak baliozkoak direla eta errealitatearekin bat datozela ezartzen duena.

es presunción de exactitud

2. ERREGISTRO ZIBILAREN ANTOLAKETA

15

abortuen paper-sorta (4)

Paper tinbreduna, abortatutako haurren gurasoen datuak, jaiotza- eta heriotza-akta eta ehorzketa-lizentzia jasotzen dituen. Kontzeptua 1957ko ekainaren 8ko Erregistro Zibilaren Legeak jasotzen zuen.

es legajo de abortos

16

absenteen erregistro zentral (4)

Absenteei buruzko informazioa jasotzen duen erregistroa, Erregistro Zibilean integratua eta datu hauek erregistratzen dituena: absentzia- eta heriotza-deklarazioak; judizialki izendatutako ordezkariak eta horien azkentzea; inbentarioen, emate-autoen eta absentearen ondasunen eskualdaketei eta zamei buruzko eskrituren aipamen zehatzak, eta heriotza-deklarazioaren ondorioz egindako banaketa- eta adjudikazio-eskriturak edo kasuan kasuko banaketa-koadernoak protokoloan jasotzeko aktak.

es registro central de ausentes

17

atal (4)

Erregistro Zibilaren zatia, 1957ko ekainaren 8ko Erregistro Zibilaren Legeari jarraikiz egoera zibilaren egitate nagusiak berezita jasotzen zituena. Erregistro Zibilak lau atal zituen: jaiotzen atala, ezkontzen atala, heriotzen atala eta tutoretzen eta legezko ordezkariatzen atala.

es sección

18

erregistro indibidual (4)

Pertsona bakoitzak duen erregistroa, identitateari, egoera zibilari eta Erregistro Zibilaren uztailearen 21eko 20/2011 Legean jasotako gainerako inguruabarrei buruzko egitate eta egintzak jasotzen dituen.

es registro individual

19

Erregistro Zibil eskusibo (4)

es Registro Civil exclusivo

20

Erregistro Zibilaren artxibo probintzial (4)

Sin. Erregistro Zibilaren probintzia-artxibo (4)
Antzinako inskripzioen paper-sortak eta liburuak biltzen zituen artxiboa, erregistroaren bestelako eraikin batean kokatzen zena. Erregistro nagusiak desagertuz gero, desagertutako idazpenak berrerratu ahal izango ziren artxibo horri esker. Kontzeptua 1957ko ekainaren 8ko Erregistro Zibilaren Legeak jasotzen zuen.

es archivo provincial del Registro Civil

21

Erregistro Zibilaren bulego kontsular (4)

Erregistro Zibilaren bulegoa, Espainiako kontsularen edo diplomaziako misioan dauden atal kontsularren ardura duten funtzionarioen erantzukizunpean dagoena eta funtzio nagusi hau duena: muga-barru kontsularrean espainiarrei gertatutako egitate eta egintzen inskripzioa egitea. 1957ko ekainaren 8ko Erregistro Zibilaren Legean “Erregistro Zibil kontsular” kontzeptua jasotzen zen.

es oficina consular del Registro Civil

22

Erregistro Zibilaren bulego orokor (4)

Erregistro Zibilaren bulegoa, Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiaren mendeko arduradun baten erantzukizunpean dagoena eta funtzio nagusi hauek dituena: deklarazioak eta eskaerak jartzea, espedienteak izapidetu eta ebatzea, eta inskripzioak eta ziurtagiriak egitea.

es oficina general del Registro Civil

23

Erregistro Zibilaren Bulego Zentrala (4)

Erregistro Zibilaren bulegoa, Justizia Ministerioak izendatutako arduradunaren erantzukizunpean dagoena eta funtzio nagusi hau duena: Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiak emandako ebazpenetatik eratorritako inskripzioak egitea. 1957ko ekainaren 8ko Erregistro Zibilaren Legean “Erregistro Zibil zentral” kontzeptua jasotzen zen.

es oficina central del Registro Civil

Erregistro Zibilaren probintzia-artxibo

Ik. Erregistro Zibilaren artxibo probintzial

24

erregistro-folio (4)

Sin. erregistroko folio (4)
Inskripzio nagusiak eta haren orribazterreko idazpenek osatzen zuten liburu-zatia. Kontzeptua 1957ko ekainaren 8ko Erregistro Zibilaren Legeak jasotzen zuen.

es folio registral

erregistroko folio

Ik. erregistro-folio

25

ezgaitzeen, tutoretza-karguen eta ondare babestuen administratzaileen liburu (4)

Erregistro Zentraleko liburua, udal-erregistroetan egiten diren inskripzio jakin batzuen bikoiztuekin osatutakoa. Hauek dira inskripzio horiek: jarduteko gaitasunaren aldaketa judizialak, tutoretza-karguen eraketa eta aldaketa, guraso-ahalaren luzapena edo itzulketa, guraso-ahalpean ez dauden ustezko ezgaien edo adingabeen zaintzari edo administrazioari buruzko neurri judizialak, kargu horien zaintza edo kontrola, eta ondare babestuen eraketa eta ondare babestuen administratzaileen izendapena eta aldaketa.

es libro de incapacitaciones, cargos tutelares y administradores de patrimonios protegidos

ezkontza sekretuei buruzko liburu berezi

Ik. isilpeko ezkontzen liburu berezi

26

ezkontzen atal (4)

Ezkontza zibilen edo erlijiosoan inskripzioak jasotzen zituen Erregistro Zibilaren atala. Kontzeptua 1957ko ekainaren 8ko Erregistro Zibilaren Legeak jasotzen zuen.

es sección de matrimonios

27

fitxa (4)

Egitate baten adierazpen dokumental laburtua.

es ficha

28

fitxategi (4)

Fitxen multzo antolatua.

es fichero

29

heriotzen atal (4)

Heriotzen egitate egiaztatuen inskripzioak jasotzen zituen Erregistro Zibilaren atala. Kontzeptua 1957ko ekainaren 8ko Erregistro Zibilaren Legeak jasotzen zuen.

es sección de defunciones

30

idazpenaren liburuki (4)

es tomo del asiento

31

idazpenaren orrialde (4)

es página del asiento

inskripzio-liburu

Ik. liburu nagusi

32

isilpeko ezkontzen liburu berezi (4)

Sin. ezkontza sekretuei buruzko liburu berezi (4)

Erregistro Zibilaren Bulego Zentraleko liburu, inskripzio hauek jasotzen dituena: Elizan egindako kontzientziako ezkontzak (bi ezkongaiak hori eskatuz gero) eta dispensa bidez sekretuan egindako ezkontza zibilak.

es libro especial de matrimonios secretos

33

jaiotzen atal (4)

Erregistro Zibilaren atala, Kode Zibilaren 30. artikulua betekizunak betetzen zituzten jaiotzen inskripzio nagusiak eta jaiotakoen egoera zibilean eragina zuten egitate guztien orribazterreko inskripzioak jasotzen zituena. Kontzeptua 1957ko ekainaren 8ko Erregistro Zibilaren Legeak jasotzen zuen.

es sección de nacimientos

34

kode pertsonal (4)

Lehenengo inskripzioarekin irekitako erregistro indibidualari esleitutako kodea, sistema informatikoak nortasun-agiri nazionalerako ematen duen sekuentzia alfanumerikoz osatutakoa.

es código personal

35

liburu egunkari (4)

Liburu lagungarria, dokumentuen sarrera eta irteera erregistratzea eta orri-bazterreko idazpenetako daten egiazkotasuna bermatzea helburu zuena. Kontzeptua 1957ko ekainaren 8ko Erregistro Zibilaren Legeak jasotzen zuen.

es libro diario

36

liburu lagungarri (4)

Liburu nagusiaren liburu osagarrietako bakoitza. Hauek ziren liburu horiek: liburu egunkariak, pertsonalaren eta bulegoaren liburuak eta erregistratzaileak beharrezkotzat jotzen zituen edo Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiak agintzen zituen gainerako koaderno lagungarriak. Kontzeptua 1957ko ekainaren 8ko Erregistro Zibilaren Legeak jasotzen zuen.

es libro auxiliar

37

liburu nagusi (4)

Sin. inskripzio-liburu (4)

Erregistro Zibileko atalei zegokien liburuetak bakoitza. Hauek ziren liburu horiek: jaiotzen liburua, ezkontzen liburua, heriotzen liburua eta tutoretzen eta legezko ordezkartzen liburua. Kontzeptua 1957ko ekainaren 8ko Erregistro Zibilaren Legeak jasotzen zuen.

es libro principal; libro de inscripciones

38

paper-sorta (4)

Dokumentu-multzo josia, erregistroko idazpenen edo inskripzioen aurrekari dena.

es legajo

39

pertsonalaren eta bulegoaren liburu (4)

Liburu lagungarria, atal hauek dituena: inbentarioa, pertsonala, ikuskapenak eta lurralde-eremua eta azken horren aldaketak.

es libro de personal y oficina

40

tutoretzen erregistro (4)

Tutoreen izendapenak inskribatzen diren erregistroa, haiek beren kargua egikaritu ahal izateko bete beharrekoa dena.

es registro de tutelas

41

tutoretzen eta legezko ordezkartzen atal (4)

Tutoretza- edo kuradoretza-karguen inskripzioak, pertsona fisikoen gainerako legezko ordezkartzen inskripzioak eta horien guztien aldaketen inskripzioak jasotzen zituen Erregistro Zibilaren atala. Kontzeptua 1957ko ekainaren 8ko Erregistro Zibilaren Legeak jasotzen zuen.

es sección de tutelas y representaciones legales

udal-erregistro

Ik. udaleko Erregistro Zibil

udal-erregistro arrunt

Ik. udal-erregistro nagusi

42

udal-erregistro bakar (4)

Lehen auzialdiko hainbat epaitegi zeuden udalerrietan ezarritako erregistroa, udalerrri guztirako bakarra eta lehen auzialdiko epaile baten edo batzuen ardurapekoa. Kontzeptua 1957ko ekainaren 8ko Erregistro Zibilaren Legeak jasotzen zuen.

es registro municipal único

43

udal-erregistro delegatu (4)

Sin. udal-erregistro ez-oso (4)

Lehen auzialdiko epailerik gabeko udalerrietarako, hau da, Erregistro Zibila bake-epaileen ardurapean zegoen udalerrietarako eraturako erregistroa. Kontzeptua 1957ko ekainaren 8ko Erregistro Zibilaren Legeak jasotzen zuen.

es registro municipal delegado;
registro municipal incompleto

udal-erregistro ez-oso

Ik. udal-erregistro delegatu

44

udal-erregistro nagusi (4)

Sin. udal-erregistro arrunt (4)

Barruti judizialeko buruan soilik zegoen erregistroa, lehen auzialdiko epailearen ardurapekoa. Kontzeptua 1957ko ekainaren 8ko Erregistro Zibilaren Legeak jasotzen zuen.

es registro municipal principal;
registro municipal ordinario

45

udaleko Erregistro Zibil (4)

Sin. udal-erregistro (4)

Espanian gertatu eta espainiarrengan edo atzerritarrengan eragina zuten egitate inskribagarri guztiak jasotzen zituen erregistroa. Kontzeptua 1957ko ekainaren 8ko Erregistro Zibilaren Legeak jasotzen zuen.

es registro civil municipal; registro municipal

3. ERREGISTRO-TITULUAK

absentzia deklaratzeko

Ik. absentzia-deklarazio

46

absentzia-deklarazio (4)

Sin. absentzia deklaratzeko (4)

es declaración de ausencia

agiri kauto

Ik. dokumentu kauto

agiri publiko

Ik. dokumentu publiko

47

aparteko titulu (4)

Sin. ezohiko titulu (4)

Leku edo inguruabar berezietan, hala nola itsasoko edo aireko bidaian, espetxeetan, ospitaleetan edo antzeko establezimendu publikoetan, edo inkomunikatuta dauden herriguneetan edo erregistro-bulegotik urrun dauden guneetan gertatutako jaiotzen, ezkontzen edo heriotzen inskripzioak egiteko legeak ahalbidetzen duen baliabidea.

es título extraordinario

48

baiezko ziurtagiri laburtu (4)

Sin. ziurtagiri positibo arrunt (4)

Eskatutako inskripzioaren laburpena jasotzen duen ziurtagiria.

es certificación positiva en extracto;
certificación positiva ordinaria

49

bizi-agiri (4)

es fe de vida

50

borondate-deklarazio (4)

es declaración de voluntad

51

dokumentu kauto (4)

Sin. agiri kauto (4)

es documento auténtico

52

dokumentu publiko (4)

Sin. agiri publiko (4)

es documento público

53

egoera-agiri (4)

es fe de estado

54

ehorzketa-lizentzia (4)

Sin. lurperatzeko-lizentzia (4)

Heriotza inskribatu ondoren, Erregistro Zibileko arduradunak hilotza lurperatzeko ematen duen baimena.

es licencia de enterramiento;
licencia de inhumación

55

eliza-ziurtagiri (4)

es certificación eclesiástica

erregistro-titulu

Ik. inskripzio-titulu

56

ezagutza-deklarazio (4)

es declaración de conocimiento

57

ezezko ziurtagiri (4)

Sin. ziurtagiri negatibo (4)

Eskatutako idazpenik jasota ez dagoela adierazten duen ziurtagiria.

es certificación negativa

58

ezkontza-espediente (4)

Sin. ezkontzaren espediente (4)

es expediente matrimonial;
expediente de matrimonio

ezkontzaren espediente

Ik. ezkontza-espediente

ezechiko titulu

Ik. aparteko titulu

59

familia-liburu (4)

Ezkontza-ziurtagiriarekin irekitzen zen liburua, erregistro-aipamen hauek ziurtatzen zituen: ezkontza-sozietatearen erregimen ekonomikoa; ezkontide bien seme-alaben jaiotza eta ezkontideek batera adoptatutako seme-alabena; ezkontideen heriotza, eta ezkontzaren deuseztasuna edo ezkontideen dibortzioa edo banantzea. Kontzeptua 1957ko ekainaren 8ko Erregistro Zibilararen Legeak jasotzen zuen.

es libro de familia

heriotza deklaratz

Ik. heriotza-deklarazio

60

heriotza-deklarazio (4)

Sin. heriotza deklaratz (4)

es declaración de fallecimiento

61

heriotza-ziurtagiri (4)

es certificado de defunción

62

hitzez hitzeko baiezko ziurtagiri (4)

Sin. hitzez hitzeko ziurtagiri positibo (4)

Eskatutako inskripzioaren eduki oso-osoasoa jasotzen duen ziurtagiria.

es certificación positiva literal

hitzez hitzeko ziurtagiri positibo

Ik. hitzez hitzeko baiezko ziurtagiri

63

informazio-ohar soil (4)

Inskribatutako idazpenei buruzko informazioa emateko Erregistro Zibilak jaulkitzen zuen dokumentua.

Kontzeptua 1957ko ekainaren 8ko Erregistro Zibilararen Legeak jasotzen zuen.

es nota simple informativa

64

inskripzio-titulu (4)

Sin. inskripzioa egiteko titulu (4); erregistro-titulu (4)

Egoera zibilar buruzko egitateak jasotzen dituen baliabide edo euskarri idatzi nahiz ahozkoa, idazpenak egiteko oinarri moduan hartzen dena.

es título de inscripción; título registral

inskripzioa egiteko titulu

Ik. inskripzio-titulu

65

jaiotza-deklarazio (4)

Sin. jaiotzaren deklarazio (4)

es declaración de nacimiento

66

jaiotza-ziurtagiri (4)

es certificado de nacimiento

jaiotzaren deklarazio

Ik. jaiotza-deklarazio

lurperatze-lizentzia

Ik. ehorzketa-lizentzia

ziurtagiri negatibo

Ik. ezezko ziurtagiri

ziurtagiri positibo arrunt

Ik. baiezko ziurtagiri laburtu

4. IDAZPENAK ORO HAR

67

abizen (4)

es apellido

68

absentearen ordezkaritza (4)

es representación del ausente

adopzio bidezko seme-alabatasun

Ik. adopziozko filiazio

69

adopzio-eskritura (4)

Sin. adopzioaren eskritura (4)

es escritura de adopción

adopzioaren eskritura

Ik. adopzio-eskritura

70

adopziozko filiazio (4)

Sin. adopzio bidezko seme-alabatasun (4)

es filiación adoptiva; filiación por adopción

71

aitarengandiko filiazio (4)

Sin. aitarengandiko seme-alabatasun (4)

es filiación paterna

aitarengandiko seme-alabatasun

Ik. aitarengandiko filiazio

72

amarengandiko filiazio (4)

Sin. amarengandiko seme-alabatasun (4)

es filiación materna

amarengandiko seme-alabatasun

Ik. amarengandiko filiazio

73

autotutoretza (4)

Pertsona batek, ezgaitu deklaratu izaten denerako, beretzat egindako tutore-izendapena.

es autotutela

74

auzotasun zibil (4)

es vecindad civil

75

auzotasun zibil erkide (4)

es vecindad civil común

76

auzotasun zibil foral (4)

es vecindad civil foral

bazterrean inskribatze

Ik. orri-bazterreko inskripzio

77

desagertuaren defendatzaile (4)

Sin. desagertutakoaren defendatzaile (4)

es defensor del desaparecido

desagertutakoaren defendatzaile

Ik. desagertuaren defendatzaile

78

desgaitasuna duen pertsonaren ondare babestu (4)

es patrimonio protegido de la persona con discapacidad

79

egintza inskribagarri (4)

Sin. inskribatzeko moduko egintza (4)

es acto inscribible

80

egitate inskribagarri (4)

Sin. inskribatzeko moduko egitate (4)

es hecho inscribible

81

egoera zibil (4)

es estado civil

82

emantzipazio (4)

Adingabea guraso-ahaletik edo tutoretzatik askatzea. Adin-nagusitasunera heltzean, ezkontzean, guraso-ahala egikaritzean dutenek nahiz epaileak ematean gauzatzen da.

es emancipación

83

emantzipazio-inskripzio (4)

Sin. emantzipazioaren inskripzio (4);

emantzipazioa inskribatze (4)

Adingabea guraso-ahaletik edo tutoretzatik askatu izanaren fede ematen duen idazpena.

es inscripción de emancipación

emantzipazioa inskribatze

Ik. emantzipazio-inskripzio

emantzipazioaren inskripzio

Ik. emantzipazio-inskripzio

84

erregistro-ezerezte (4)

Sin. ezerezte (4)

Edozein motatako erregistro-idazpenei efikazia, erabat edo zati batean, kentzen dien idazpena. Ezerezten den idazpena deuseza delako, efikaziarik gabea delako, egitate edo egintza hori existitzen ez delako edo legeak ezarritako beste arrazoiren batengatik egiten da.

es cancelación registral; cancelación

85

erregistro-idazpen (4)

Erregistro Zibilean dokumentatzen diren datu eta egitatean adierazpen idatzia. Hiru motatako idazpenak egiten dira: inskripzioak, idatzoharrak eta ezerezteak.

es asiento registral

86

erregistroko idatzohar (4)

Sin. idatzohar (4)

Froga-baliorik ez duen idazpena; informazio-balio hutsa izaten du legeak bestelakorik zehaztu ezean.

es anotación registral; anotación

87

erregistroko inskripzio (4)

Sin. inskripzio (4)

Froga-balioa duen idazpena, pertsonen egoera zibilari buruzko egitate eta egintzak eta Erregistro Zibilaren Legean zehaztutako gainerakoak erregistratzeko.

es inscripción; inscripción registral

88

erregistroko ziurtagiri (4)

Inskribatutako idazpenen edukia ziurtatzeko erregistroko arduradunak edo idazkariak ematen duen dokumentua.

es certificación registral

ezerezte

Ik. erregistro-ezerezte

ezgaiteta

Ik. ezgaitze

89

ezgaitze (4)

Sin. ezgaiteta (4)

Epai judicial baten bidez, jarduteko gaitasuna osorik edo zati batean mugatzea.

es incapacitación

90

ezgaitze-deklarazio judizial (4)

Sin. ezgaitzeko deklarazio judizial (4)
 Pertsona baten jarduteko gaitasuna osorik edo zati batean mugatu dela deklaratzeko duen ebazpen judiziala.

es declaración de incapacitación judicial

ezgaitzeko deklarazio judizial

Ik. ezgaitze-deklarazio judizial

ezkontza inskribatze

Ik. ezkontza-inskripzio

91

ezkontza kanoniko (4)

es matrimonio canónico

92

ezkontza sekretu (4)

Sin. isilpeko ezkontza (4);
 kontzientziarako ezkontza (4)

es matrimonio secreto; matrimonio de conciencia

93

ezkontza zibil (4)

es matrimonio civil

94

ezkontza-inskripzio (4)

Sin. ezkontzaren inskripzio (4);
 ezkontza inskribatze (4)
 Ezkondu izanaren eta ezkontzaren inguruko hainbat daturen (dataren, orduaren eta lekua) fedea ematen duen idazpena.

es inscripción de matrimonio;
 inscripción matrimonial

ezkontza-sozietatearen ondasun-eraentza

Ik. ezkontzaren ondasun-eraentza

ezkontzaren araubide ekonomiko

Ik. ezkontzaren ondasun-eraentza

ezkontzaren inskripzio

Ik. ezkontza-inskripzio

95

ezkontzaren ondasun-eraentza (4)

Sin. ezkontzaren araubide ekonomiko (4); ezkontza-sozietatearen ondasun-eraentza (4)

es régimen económico matrimonial;
 régimen económico de la sociedad conyugal

96

ezkontzaz kanpoko filiazio (4)

Sin. ezkontzaz kanpoko seme-alabatasun (4)

es filiación no matrimonial;
 filiación extramatrimonial

ezkontzaz kanpoko seme-alabatasun

Ik. ezkontzaz kanpoko filiazio

97

ezkontzazko filiazio (4)

Sin. ezkontzazko seme-alabatasun (4)

es filiación matrimonial

ezkontzazko seme-alabatasun

Ik. ezkontzazko filiazio

98

filiazio (4)

Sin. seme-alabatasun (4)

Bi pertsonaren artean dagoen lotura juridikoa, egitate natural edo egintza juridiko baten ondorioz bata bestearen ondorengoa denean sortzen dena.

es filiación

99

filiazio natural (4)

es filiación natural; filiación por naturaleza

100

guraso-ahal (4)

Gurasoek emantzipatu gabeko seme-alaban gainean dituzten eskubide eta betebeharren multzoa.

es patria potestad

101

heriotza (4)

es defunción

heriotza inskribatze

Ik. heriotza-inskripzio

102

heriotza-inskripzio (4)

Sin. heriotzaren inskripzio (4); heriotza inskribatze (4)

Pertsonaren heriotzaren eta horren inguruko hainbat daturen (dataren, orduaren eta lekuaren) fede ematen duen idazpena.

es inscripción de defunción;
inscripción de fallecimiento

heriotzaren inskripzio

Ik. heriotza-inskripzio

idatzohar

Ik. erregistroko idatzohar

103

idazpen elektronikoa (4)

Euskarri eta formatu elektronikoan egindako idazpena, Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiak onartutako ereduera egokitua.

es asiento electrónico

inskribatzeko moduko egintza

Ik. egintza inskribagarri

inskribatzeko moduko egitate

Ik. egitate inskribagarri

inskripzio

Ik. erregistroko inskripzio

104

inskripzio nagusi (4)

Erregistroko atal bakoitzeko liburuetan egiten zen idazpena, erregistro-foleoa irekitzen zuena. Jaiotza, ezkontza, heriotza edo tutoretzaren edo legezko ordezkariaren eraketa soilik jaso zitezkeen inskripzio nagusi bidez. Kontzeptua 1957ko ekainaren 8ko Erregistro Zibilaren Legeak jasotzen zuen.

es inscripción principal

105

inskripzioa sustatu (4)

es promover inscripción

inskripzioaren efikazia

Ik. inskripzioaren eraginkortasun

106

inskripzioaren eraginkortasun (4)

Sin. inskripzioaren efikazia (4)

es eficacia de la inscripción

isilpeko ezkontza

Ik. ezkontza sekretu

107

izen (4)

Sin. izen berezi (4); izen propio (4)

es nombre; nombre propio

izen berezi

Ik. izen

izen propio

Ik. izen

108

jaiotza (4)

es nacimiento

jaiotza inskribatze

Ik. jaiotza-inskripzio

109

jaiotza-inskripzio (4)

Sin. jaiotzaren inskripzio (4); jaiotza inskribatze (4)

Inskribatuaren jaiotza-egitatearen eta horren inguruko hainbat daturen (izenaren, abizenaren, dataren, orduaren, lekuaren, sexuaren eta, hala dagokionean, filiazioaren) fede ematen duen idazpena.

es inscripción de nacimiento

jaiotzaren inskripzio

Ik. jaiotza-inskripzio

110

jatorrizko nazionalitate (4)

Jaiotzaren unetik pertsonak eskuratzen duen nazionalitatea.

es nacionalidad originaria

konkurtsodeklarazio

Ik. konkurtsorearen deklarazio

konkurtsodeklaratzeko

Ik. konkurtsorearen deklarazio

111

konkurtsorearen deklarazio (4)

Sin. konkurtsodeklarazio (4); konkurtsodeklaratzeko (4)

Pertsona fisiko baten kaudimengabezia deklaratzeko duen ebazpen judiziala; ondorioz, konkurtsodeklaratzeko ezgaituta geratzen da bere ondasunak administratzeko eta beste hainbat gauza egiteko.

es declaración de concurso

kontzientziakontziazko ezkontza

Ik. ezkontza sekretu

112

kuradoretzakuradoretza (4)

Laguntza-kargua, jarduteko gaitasun osoa ez duen pertsonaren gaitasuna osatzen duena. Kuradoreak ez du ordeztzen, ordezkatzeko edo zaintzen ezgaitua, osatu egiten du haren gaitasuna berak bakarrik gauza ezin ditzakeen egintzetan.

es curatela

113

legezko absentziak (4)

es ausencia legal

114

legezko ordezkariak (4)

es representación legal

115

nazionalitate (4)

es nacionalidad

116

nazionalitate bikoitza (4)

es doble nacionalidad

117

nazionalitate eratorria (4)

Jaiotza ez den beste bideren batez eskuratzen den nazionalitatea.

es nacionalidad derivativa

118

nazionalitate eskuratzeko (4)

es adquisición de nacionalidad

119

nazionalitate galtzea (4)

es pérdida de nacionalidad

120

nazionalitate gordetzea (4)

es conservación de nacionalidad

ofizioz egindako inskripzio

Ik. ofiziozko inskripzio

121

ofiziozko inskripzio (4)

Sin. ofizioz egindako inskripzio (4)

es inscripción de oficio; inscripción practicada de oficio

ordainketa-etendura deklaratzeko

Ik. ordainketa-etenduraren deklarazio

122

ordainketa-etenduraren deklarazio (4)

Sin. ordainketa-etendura deklaratzeko (4)

Likidezia falta deklaratzeko duen ebazpen judiziala; ukituari debeku edo muga batzuk jartzen zaizkio hartzekodunen aldeko neurri bermatzaile gisa.

es declaración de suspensión de pagos

123

orri-bazterreko inskripzio (4)

Sin. bazterrean inskribatze (4)

Inskripzio nagusi baten aldamenean, orriaren ertzean, egiten zen inskripzio osagarria, inskripzio nagusian jaso ezin zireen egitate inskribagarriak jasotzekoa. Kontzeptua 1957ko ekainaren 8ko Erregistro Zibilaren Legeak jasotzen zuen.

es inscripción marginal; inscripción al margen

prebentziozko ahalorde-emate

Ik. prebentziozko ahalordetze

124

prebentziozko ahalordetze (4)

Sin. prebentziozko ahalorde-emate (4)

Aldebakarreko borondatezko adierazpena, etorkizunean ezigaitasun bat izatea aurreikusten duen pertsona batek beste pertsona bati ahalmenak eskuordetzan ematekoa, haren izenean jardun dezan.

es apoderamiento preventivo

seme-alabatasun

Ik. filiazio

125

sinadura elektronikoko

Sinatzaile baten identitatea egiaztatzeko erabiltzen den agiri elektronikoa.

es firma electrónica

126

tutoretza (4)

Erakunde juridikoa, guraso ahalpean ez dauden adingabe emantzipatugabeak, ezgai deklaratuak, guraso-ahal luzatuaren menpe daudenak edo babesgabezia-egoeran diren adingabeak eta horien ondasunak zaintzeko eratuak.

es tutela

zarrastel deklaratzeko

Ik. zarrastelkeria-deklarazio

127

zarrastelkeria-deklarazio (4)

Sin. zarrastel deklaratzeko (4)

Pertsona batek, familiarreko batzuen kaltetan, bere ondarea xahutu edo suntsitu izana deklaratzeko duen ebazpen judiziala.

es declaración de prodigalidad

5. ORGANOAK ETA PERTSONAL ESKUDUNA

ENZN

Ik. Erregistroen eta Notariotzaren
Zuzendaritza Nagusia

128

erregistratzaile (4)

es registrador

129

Erregistro Zibilaren bulego orokorreko arduradun (4)

es encargado de la oficina general
del Registro Civil

130

Erregistro Zibilaren Bulego Zentraleko arduradun (4)

es encargado de la oficina central
del Registro Civil

131

Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusia (4)

Sin. ENZN (4)

Espainiako Erregistro Zibileko
zuzendaritza- eta kontsulta-zentroa,
besteak beste.

es Dirección General de los
Registros y del Notariado;
DGRN

6. ERREGISTRO-PROZEDURA

132

abizenen hurrenkera

aldatze (4)

Sin. abizenen ordena aldatze (4)

es inversión del orden de los apellidos; alteración del orden de los apellidos

abizenen ordena aldatze

Ik. abizenen hurrenkera aldatze

133

egiaztapen osagarri (4)

es comprobación supletoria

erregistro-espediente

Ik. gobernu-espediente

134

erregistro-kalifikazio (4)

Sin. erregistroko kalifikazio (4)

Inskripzio-tituluak baloratzeko eta edukiaren eta araudiaren arabera idazpena egitea bidezkoa den ala ez erabakitzeko erregistroko arduradunari edo erregistratzaileari esleitutako funtzioa.

es calificación registral

erregistro-laguntza

Ik. erregistroko laguntza

erregistroko kalifikazio

Ik. erregistro-kalifikazio

135

erregistroko laguntza (4)

Sin. erregistro-laguntza (4)

es auxilio registral

136

gobernu-espediente (4)

Sin. erregistro-espediente (4)

Erregistro Zibilek erabiltzen duten prozedura, batez ere inskripzio-datuak berrerratzeko edo osatzeko, okerrak arzteko eta akatsak zuzentzeko baliatzen dutena.

es expediente gubernativo; expediente registral

137

idazpena aldatze (4)

es alteración de asiento

138

idazpena berrerratzeko (4)

es reconstitución de asiento

139

idazpena egitea (4)

es extensión de asiento

idazpena etenda uzte

Ik. idazpena etete

140

idazpena etete (4)

Sin. idazpena etenda uzte (4)

es interrupción de asiento

141

idazpena gehitze (4)

es adición de asiento

142

idazpena kentze (4)

es supresión de asiento

143

idazpena lekualdatze (4)

Idazpen baten eduki osoa beste erregistro batera edo erregistro bereko beste leku batera kopiatzea, jatorrizko idazpena indarrrik gabe utziz, ezereztu egiten baita.

es traslado de asiento

144

idazpena osatze (4)

es complementación de asiento

145

idazpena sustatze (4)

es promoción de asiento

146

idazpena zuzentze (4)

es rectificación de asiento

147

idazpenaren zehaztasunik ez (4)

es inexactitud del asiento

148

irekiera-eginbide (4)

Sin. irekierako eginbide (4)

es diligencia de apertura

irekierako eginbide

Ik. irekiera-eginbide

149

itxiera-eginbide (4)

Sin. itxierako eginbide (4)

es diligencia de cierre

itxierako eginbide

Ik. itxiera-eginbide

150

izen-abizenak aldatze (4)

Sin. izen-abizenen aldaketa (4)

es cambio de nombre y apellidos

izen-abizenen aldaketa

Ik. izen-abizenak aldatze

151

ziurtagiria egite (4)

Sin. ziurtagiria jaulkitze (3)

es expedición de certificación;
expedición de certificado

ziurtagiria jaulkitze

Ik. ziurtagiria egite

EUSKARAZKO AURKIBIDEA



A

abizen, 67
abizenen hurrenkera aldatze, 132
abizenen ordena aldatze, 132
abortuen paper-sorta, 15
absentearen ordezkari, 68
absenteen erregistro zentral, 16
absentzia deklaratu, 46
absentzia-deklarazio, 46
adopzio bidezko seme-alabatasun, 70
adopzioaren eskritura, 69
adopzio-eskritura, 69
adopziozko filiazio, 70
agiri kauto, 51
agiri publiko, 52
aitarengandiko filiazio, 71
aitarengandiko seme-alabatasun, 71
amarengandiko filiazio, 72
amarengandiko seme-alabatasun, 72
aparteko titulu, 47
atal, 17
autotutoretza, 73
auzotasun zibil, 74
auzotasun zibil erkide, 75
auzotasun zibil foral, 76

B

baiezko ziurtagiri laburtu, 48
bazterrean inskribatu, 123
bizi-agiri, 49
borondate-deklarazio, 50

D

desagertuaren defendatzaile, 77
desagertutakoaren defendatzaile, 77
desgaitasuna duen pertsonaren ondare
babestu, 78
dokumentu kauto, 51
dokumentu publiko, 52

E

egiaztapen osagarri, 133
egintza inskribagarri, 79
egitate inskribagarri, 80
egoera zibil, 81
egoera-agiri, 53
ehorzketa-lizentzia, 54
eliza-ziurtagiri, 55
emantzipazio, 82
emantzipazioa inskribatu, 83
emantzipazioaren inskripzio, 83
emantzipazio-inskripzio, 83
ENZN, 131
eraginkortasun eratzailer, 1
eratzere-eraginkortasun, 1
erregistratzaile, 128
erregistro indibidual, 18
Erregistro Zibil bakar, 2
Erregistro Zibil eskusibo, 19
Erregistro Zibila, 3
Erregistro Zibilaren artxibo
probintzial, 20
Erregistro Zibilaren bulego kontsular, 21
Erregistro Zibilaren bulego orokor, 22
Erregistro Zibilaren bulego orokorreko
arduradun, 129
Erregistro Zibilaren Bulego Zentrala, 23
Erregistro Zibilaren Bulego Zentraleko
arduradun, 130
Erregistro Zibilaren Erregelamendua, 4

Erregistro Zibilaren Legea, 5
 Erregistro Zibilaren probintzia-
 artxibo, 20
 Erregistroen eta Notariotzaren
 Zuzendaritza Nagusia, 131
 erregistro-espeditente, 136
 erregistro-ezerezte, 84
 erregistro-folio, 24
 erregistro-idazpen, 85
 erregistro-kalifikazio, 134
 erregistroko folio, 24
 erregistroko idatzohar, 86
 erregistroko inskripzio, 87
 erregistroko kalifikazio, 134
 erregistroko laguntza, 135
 erregistroko ziurtagiri, 88
 erregistro-laguntza, 135
 erregistro-titulu, 64
 ezagutza-deklarazio, 56
 EZE, 4
 ezerezte, 84
 ezezko ziurtagiri, 57
 ezgaiketa, 89
 ezgaitze, 89
 ezgaitze-deklarazio judizial, 90
 ezgaitzeen, tutoretza-karguen
 eta ondare babestuen
 administratzaileen liburu, 25
 ezgaitzeko deklarazio judizial, 90
 ezkontza inskribatze, 94
 ezkontza kanoniko, 91
 ezkontza sekretu, 92
 ezkontza sekretuei buruzko liburu
 berezi, 32
 ezkontza zibil, 93
 ezkontza-espeditente, 58
 ezkontza-inskripzio, 94
 ezkontzaren araubide ekonomiko, 95
 ezkontzaren espeditente, 58
 ezkontzaren inskripzio, 94
 ezkontzaren ondasun-eraentza, 95
 ezkontza-sozietatearen ondasun-
 eraentza, 95
 ezkontzaz kanpoko filiazio, 96
 ezkontzaz kanpoko seme-alabatasun, 96

ezkontzazko filiazio, 97
 ezkontzazko seme-alabatasun, 97
 ezkontzen atal, 26
 EZL, 5
 ezohiko titulu, 47

F

familia-liburu, 59
 filiazio, 98
 filiazio natural, 99
 fitxa, 27
 fitxategi, 28
 frogatze-eraginkortasun, 6

G

gobernu-espeditente, 136
 guraso-ahal, 100

H

heriotza, 101
 heriotza deklaratzeko, 60
 heriotza inskribatze, 102
 heriotza-deklarazio, 60
 heriotza-inskripzio, 102
 heriotzaren inskripzio, 102
 heriotza-ziurtagiri, 61
 heriotzen atal, 29
 hirugarrenen aurka baliatzeko
 ahalmenaren printzipio, 7
 hirugarrenen aurka baliatzeko
 ezintasunaren printzipio, 8

hitzez hitzeko baiezko ziurtagiri, 62
hitzez hitzeko ziurtagiri positibo, 62

izen-abizenak aldatze, 150
izen-abizenen aldaketa, 150

I

idatzohar, 86
idazpen elektronikoa, 103
idazpena aldatze, 137
idazpena berreratze, 138
idazpena egite, 139
idazpena etenda uzte, 140
idazpena etete, 140
idazpena gehitze, 141
idazpena kentze, 142
idazpena lekualdatze, 143
idazpena osatze, 144
idazpena sustatze, 145
idazpena zuzentze, 146
idazpenaren liburuki, 30
idazpenaren orrialde, 31
idazpenaren zehaztasunik ez, 147
informazio-ohar soil, 63
inskribatzeko moduko egintza, 79
inskribatzeko moduko egitate, 80
inskripzio, 87
inskripzio nagusi, 104
inskripzioa egiteko titulu, 64
inskripzioa sustatu, 105
inskripzioaren efikazia, 106
inskripzioaren eraginkortasun, 106
inskripzio-liburu, 37
inskripzio-titulu, 64
irekiera-eginbide, 148
irekierako eginbide, 148
isilpeko ezkontza, 92
isilpeko ezkontzen liburu berezi, 32
itxiera-eginbide, 149
itxierako eginbide, 149
izen, 107
izen berezi, 107
izen propio, 107

J

jaiotza, 108
jaiotza inskribatze, 109
jaiotza-deklarazio, 65
jaiotza-inskripzio, 109
jaiotzaren deklarazio, 65
jaiotzaren inskripzio, 109
jaiotza-ziurtagiri, 66
jaiotzen atal, 33
jatorrizko nazionalitate, 110

K

kode pertsonal, 34
konkurtoa deklaratu, 111
konkurtoaren deklarazio, 111
konkurto-deklarazio, 111
kontzientziatzeko ezkontza, 92
kuradoretza, 112

L

legezko absentzia, 113
legezko ordezkari, 114
legezkotasunaren printzipio, 9
legezkotasun-printzipio, 9
liburu egunkari, 35
liburu lagungarri, 36
liburu nagusi, 37
lurperatze-lizentzia, 54

N

nazionalitate, 115
nazionalitate bikoitz, 116
nazionalitate eratorri, 117
nazionalitatea eskuratze, 118
nazionalitatea galtze, 119
nazionalitatea gordetze, 120

O

ofizialtasun-printzipio, 10
ofizioz egindako inskripzio, 121
ofiziozko inskripzio, 121
ordainketa-etendura deklaratzeko, 122
ordainketa-etenduraren deklarazio, 122
orri-bazterreko inskripzio, 123
osotasun-presuntzio, 11

P

paper-sorta, 38
pertsonalaren eta bulegoaren liburu, 39
prebentziozko ahalorde-emate, 124
prebentziozko ahalordetze, 124
publikotasun murriztu, 12
publikotasunaren printzipio, 13
publikotasun-printzipio, 13

S

seme-alabatasun, 98
sinadura elektronikoa, 125

T

tutoretza, 126
tutoretzen erregistro, 40
tutoretzen eta legezko ordezkari-
atal, 41

U

udaleko Erregistro Zibil, 45
udal-erregistro, 45
udal-erregistro arrunt, 44
udal-erregistro bakar, 42
udal-erregistro delegatu, 43
udal-erregistro ez-oso, 43
udal-erregistro nagusi, 44

Z

zarrastel deklaratzeko, 127
zarrastelkeria-deklarazio, 127
zehaztasun-presuntzio, 14
ziurtagiri negatibo, 57
ziurtagiri positibo arrunt, 48
ziurtagiria egite, 151
ziurtagiria jaulkitze, 151

GAZTELANIAZKO AURKIBIDEA



A

acto inscribible, 79
adición de asiento, 141
adquisición de nacionalidad, 118
alteración de asiento, 137
alteración del orden de los
 apellidos, 132
anotación, 86
anotación registral, 86
apellido, 67
apoderamiento preventivo, 124
archivo provincial del Registro
 Civil, 20
asiento electrónico, 103
asiento registral, 85
ausencia legal, 113
autotutela, 73
auxilio registral, 135

C

calificación registral, 134
cambio de nombre y apellidos, 150
cancelación, 84
cancelación registral, 84
certificación eclesiástica, 55
certificación negativa, 57
certificación positiva en extracto, 48
certificación positiva literal, 62
certificación positiva ordinaria, 48
certificación registral, 88
certificado de defunción, 61
certificado de nacimiento, 66
código personal, 34
complementación de asiento, 144
comprobación supletoria, 133
conservación de nacionalidad, 120
curatela, 112

D

declaración de ausencia, 46
declaración de concurso, 111
declaración de conocimiento, 56
declaración de fallecimiento, 60
declaración de incapacitación
 judicial, 90
declaración de nacimiento, 65
declaración de prodigalidad, 127
declaración de suspensión de pagos, 122
declaración de voluntad, 50
defensor del desaparecido, 77
defunción, 101
DGRN, 131
diligencia de apertura, 148
diligencia de cierre, 149
Dirección General de los Registros y
 del Notariado, 131
doble nacionalidad, 116
documento auténtico, 51
documento público, 52

E

eficacia constitutiva, 1
eficacia de la inscripción, 106
eficacia probatoria, 6
emancipación, 82
encargado de la oficina central del
 Registro Civil, 130
encargado de la oficina general del
 Registro Civil, 129
escritura de adopción, 69
estado civil, 81
expedición de certificación, 151
expedición de certificado, 151
expediente de matrimonio, 58
expediente gubernativo, 136
expediente matrimonial, 58

expediente registral, 136
 extensión de asiento, 139

F

fe de estado, 53
 fe de vida, 49
 ficha, 27
 fichero, 28
 filiación, 98
 filiación adoptiva, 70
 filiación extramatrimonial, 96
 filiación materna, 72
 filiación matrimonial, 97
 filiación natural, 99
 filiación no matrimonial, 96
 filiación paterna, 71
 filiación por adopción, 70
 filiación por naturaleza, 99
 firma electrónica, 125
 folio registral, 24

H

hecho inscribible, 80

I

incapacitación, 89
 inexactitud del asiento, 147
 inscripción, 87
 inscripción al margen, 123
 inscripción de defunción, 102
 inscripción de emancipación, 83

inscripción de fallecimiento, 102
 inscripción de matrimonio, 94
 inscripción de nacimiento, 109
 inscripción de oficio, 121
 inscripción marginal, 123
 inscripción matrimonial, 94
 inscripción practicada de oficio, 121
 inscripción principal, 104
 inscripción registral, 87
 interrupción de asiento, 140
 inversión del orden de los apellidos, 132

L

legajo, 38
 legajo de abortos, 15
 Ley del Registro Civil, 5
 libro auxiliar, 36
 libro de familia, 59
 libro de incapacitaciones, cargos
 tutelares y administradores de
 patrimonios protegidos, 25
 libro de inscripciones, 37
 libro de personal y oficina, 39
 libro diario, 35
 libro especial de matrimonios secretos,
 32
 libro principal, 37
 licencia de enterramiento, 54
 licencia de inhumación, 54
 LRC, 5

M

matrimonio canónico, 91
 matrimonio civil, 93
 matrimonio de conciencia, 92
 matrimonio secreto, 92

N

nacimiento, 108
nacionalidad, 115
nacionalidad derivativa, 117
nacionalidad originaria, 110
nombre, 107
nombre propio, 107
nota simple informativa, 63

O

oficina central del Registro Civil, 23
oficina consular del Registro Civil, 21
oficina general del Registro Civil, 22

P

página del asiento, 31
patria potestad, 100
patrimonio protegido de la persona con discapacidad, 78
pérdida de nacionalidad, 119
presunción de exactitud, 14
presunción de integridad, 11
principio de inoponibilidad, 8
principio de legalidad, 9
principio de oficialidad, 10
principio de oponibilidad, 7
principio de publicidad, 13
promoción de asiento, 145
promover inscripción, 105
publicidad restringida, 12

R

reconstitución de asiento, 138
rectificación de asiento, 146
régimen económico de la sociedad conyugal, 95
régimen económico matrimonial, 95
registrador, 128
registro central de ausentes, 16
Registro Civil, 3
Registro Civil exclusivo, 19
registro civil municipal, 45
Registro Civil único, 2
registro de tutelas, 40
registro individual, 18
registro municipal, 45
registro municipal delegado, 43
registro municipal incompleto, 43
registro municipal ordinario, 44
registro municipal principal, 44
registro municipal único, 42
Reglamento del Registro Civil, 4
representación del ausente, 68
representación legal, 114
RRC, 4

S

sección, 17
sección de defunciones, 29
sección de matrimonios, 26
sección de nacimientos, 33
sección de tutelas y representaciones legales, 41
supresión de asiento, 142

T

título de inscripción, 64
título extraordinario, 47
título registral, 64
tomo del asiento, 30
traslado de asiento, 143
tutela, 126

V

vecindad civil, 74
vecindad civil común, 75
vecindad civil foral, 76

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- ALONSO, M.; ALONSO, RM. *Derecho Procesal del Trabajo*. Madril: Ed. Civitas, 2010.
- ARISTONDO, A.; ATXABAL, A.; OTADUI, A. [et. al]. [itz.]. *Prozedura Zibilaren Legea = Ley de Enjuiciamiento Civil*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea. 2004 [Lege-testuak = Textos legales].
- ARRIETA, F.J.; LOBERA, A.; URRUTIA, A. *Lan-zuzenbideko legeria = Legislación de Derecho laboral*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 2006. (Lege-testuak = Textos legales).
- ARRIETA, F.J.; GALLASTEGI, C.; LARRAZABAL, S.; ETXEBARRIA, A. *Lan Zuzenbideko Berbatagia = Vocabulario de Derecho Laboral*. Bilbo: Deustuko Argitalpenak, 2009.
- HAAE/IVAP. *Kataluniako Autonomia Estatutua = Estatuto de Autonomía de Cataluña*.
- Ley 20/2007, de 11 de julio, del Estatuto del trabajo autónomo [linean]. <http://noticias.juridicas.com/base_datos/Laboral/l20-2007.html> [Kontsulta: 2011-06-08].
- Ley 1/1996, de 10 de enero, de Asistencia Jurídica Gratuita [linean]. <http://noticias.juridicas.com/base_datos/Admin/l1-1996.html> [Kontsulta:2011-06-08].
- Ley orgánica 11/1985, de 2 de agosto, de Libertad Sindical [linean]. <http://noticias.juridicas.com/base_datos/Admin/lo11-1985.html> [Kontsulta: 2011-06-08].
- MINISTERIO JUSTICIA E INTERIOR. 2/1995 Legegintzako Errege Dekretua, 1995eko apirilaren 7koa, Lan-arloko Prozeduraren Legearen testu bategina onesten duena = Real Decreto Legislativo 2/1995, de 7 abril. PROCEDIMIENTO LABORAL. Aprueba el Texto Refundido de la Ley de Procedimiento Laboral.
- MINISTERIO TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL. *Estatuto de los trabajadores. Texto refundido de la Ley = LAN ETA GIZARTE SEGURANTZAKO MINISTERIOA. Langileen estatutua*.
- ORDEÑANA, I. *Lan-zuzenbide jurisdikzionala. Azterketa objektiboa eta kritikoa*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea, 2010.
- RAMÍREZ, J.M. [zuz.]; ARRIETA, F.J. [Itz.]. *Lan-zuzenbidearen ikasgaiak. Iturriak. Sindikatu-zuzenbidea. Lan-kontratua. Gizarte Segurantza*. Lan-prozesua. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea. 2004.

